




ikastolak



TANTIRUMAIRU IKASTOLA LESAKA



Haur Hezkuntzakoek 'Zumetarekin jolasean' tailerrean parte hartu zuten.

nak modu erakargarrian jarri zizkiguten. Taldeak egin eta eta gero, talde bakoitzak zer egin pentsatu eta bozetoak marraztu genituen eta gure artelanak sortu genituen. Bukatzeko, eskulturak herrian barna jarri zituzten herritarrek ikusi, parte hartu eta eragiteko.

ZUMETA Artea Oinez, urtero pertsona bat omentzen da eta aurren, bere bizian zehar euskararen eta euskal kulturaren alde lan haundia egin duelako eta ikastolak ardatz nagusia euskara duelako, Zumeta aukeratu zuten.

Bi egun desberdinetan Haur Hezkuntzako eta 1. eta 2. mailako ikasleentzat bi tailer antolatu zituzten. Tailerrak Zumetarekin jolasean izena zuen eta Haur Hezkuntzakoek apirilaren 3an egin zuten. Lehendabiziko, Zumetaren inguruko irudi batzuk ikusi zituzten eta bere bizitzari buruz solastu zuten. Bere dokumental zatitxo bat ere ikusi zuten; nola margotzen duen jakin eta ea ze prozesu erabiltzen zuen ikasi zuten. Hori dena eta gero, margotzen hasi ziren eta horrekin liburuxka bat osatu zuten.

ARGAZKIGINTZA TAILERRA 3. eta 4. mailakoek argazkigintza tailerra izan zuten. Helburua, argazkigintzarekin esperimentatzea izan zen.

Gela oso bat itxi zuten eta leihoetan plastiko beltz batzuk jarri zituzten, argia tapatzeko. Leihoan, forma boro-bileko zulo tiki batzuk egin zituzten, plastiko beltzean. Gela ilun-iluna gelditu zen. Horrela, argazki kamera erraldoi bat sortu zuten.

Asier Gogortzak, argazkilaria, tamaina desberdinetako paper zuri batzuk ekarri zituen. Zulotxo horietatik kanpoko irudia paperean islatua ikusten zen, baina alderantziz. Berezia bezain harrigarria.

AITZINERA BEGIRA ZER? Etorkizunari begira, bertze ekimen batzuk ditugu burutan.

Alde batetik, Bortziritako ikasleentzat erakusketara hurbildu eta Zumeta ezagutzeko jolas eta proposamen bat prestatu da. Bertetik, ikasleek Lesakako fabrika lan egin zuten beren familiakideen testigantzekin bildu ditugu. Bildutako testigantzekin osatutako bideoa, maiatzaren 27 eta 28an proiektatuko dugu Bihotzkada kolektiboaren lokalean. Pentsatu duten azken tailerra, berriz, bunkerrena izanen da. Agiñako bunkerrean Bihotzkada kolektibokoekin sormen tailer bat egingen dute. ●

Heldu zein ikasleentzako, Artea Oinez 2017

ARTEA OINEZEKO KIDEEK, ERAKUSKETA ANTOLATZEAZ GAIN, IKASLEENTZAKO TAILERRAK ESKAINI DITUZTE

📷 Testua eta argazkiak Tantirumairu Ikastola


Apirilaren 7an ireki zen Artea Oinezeko erakusketa Iruñean. Lesakan berriz, maiatzaren 19an izan da irekiera eta ekainak 4ra arte egonen da zabalik. Urte guztian zehar burutzen ari dira ikasleentzako jarduerak.

Ikasleentzako antolaturiko tailerren intentzioa ikasleengan eragitea izan da, sentitzea, tailerrak bizitzea eta esperimentatzea. Aipatu ziguten bezala lau helburu dituzte: helburu orokor bat artearen munduari buruz jakinmina eta interesa biztea izanen litzateke. Bigarren helburua, adieraz-

pen plastiko desberdinetara hurbiltzea. Hirugarrena, adierazpen hauetan esperimentatzea eta laugarrena, Artea Oinez erakusketa Iruñean eta herrian dugunez, ikasleei hau bisitatzeko gogo sortzea.

Gisa berean, urte guztian zehar egingen diren tailerrak artearekin eta jardueretako sortu dituzten 6 kontzeptuekin lotuak daude: memoria, burdina, industrializazioa, transmisioa, harremanak eta sormena.

ESKULTURAK Tantirumairu ikastolako 5. eta 6. mailako ikasleak izan



Artea Oinez 2017ko logoa.

gingen lehenak tailerretan parte hartzen. Abenduaren 21ean eskulturak egin genituen Lesakako komentuan.

Tailerrean hainbat eskulturgileren artelanak ikusi genituen. Horrela, komentu erdian material desberdi-


2016-2017 IKASTURTEKO AZKEN ORRIA!

Ikasturtea bukatzeaz dela, Nafarroako Ikastolek eta Diario de Noticias elkarlanean argitaratzen dugun orrialde honi agur esateko garaia iritsi da. Espero dugu gure lehiaketa txiki honekin ongi pasatu izana eta, ez ardura-du, datorren ikasturterako bueltan izango gaituzue eta! Mila esker guztioi zuen parte-hartzeagatik!

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Ioar Naroa (Erentzun Ikastola).

OINEZ BALEA (2): Markel Molinet (Ibaialde Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua era-kundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.